



1.- Sarrera.

Proba hau prestatzeko Erreferentziazko Europar Markoaren B2 mailarako zehazten dituen jarraibideetan oinarritu gara. Europar Markoak *Erabiltzaile bere kabuzkoa* izendatzen du maila honetako ikaslea, eta proba hau gainditzeak zeu ere horrelakoa zarela ziurtatu nahi du. Probak lau trebetasunak (entzumena, irakurmena, mintzamina eta idazmena) neurtzen ditu eta ariketak prestatzean Europako Markoak ematen dituen irizpideak kontuan hartu ditugu.

2.- Probaren egitura.

Orientazio gisa, hona hemen trebetasunez trebetasuneko eginkizunen zenbait adibide.

Proba idatzia

2.1 Irakurmena.

Testu batzuetan oinarritutako hainbat egiteko izango dituzu. Normalean bi testu luze izanen dira edo lauzpabost labur, baina osotara ez dira 800-1000 hitz baino gehiagokoak izanen. Ariketen artean hauek aurki ditzakezu: erantzun laburreko galderak, aukera anitzekoak, egia/gezurra erantzutekoak, taulak osatzekoak, loturak egitekoak, laburpenak, izenburuak eta testuak lotzekoak, berridazketak, hiztegia, anaforak (erreferentziak)...

2.2 Entzumena.

Eguneroko bizitzako gaien inguruko 2 testu entzun/ ikusiko dituzu (audioan edo bideoan), eta testu horien ulermena adierazi beharko duzu. Testua luzea izan liteke (5/ 6 minutu ingurukoa, bi zatitan) edo zenbait testu labur (minutu 1 ingurukoa), minutu kopurua osatu arte.

Ariketa motak: aukera anitzeko galderak, erantzun laburreko galderak, egia/gezurra erantzutekoak, lauki bateko informazioa osatu eta abar.

2.3 Idazmena.

Testu luze bat (250 hitz ingurukoa) edo bi testu motz (120 hitz ingurukoak) ekoiztuko beharko dituzu. Horretarako ordubete inguru izango duzu.

Ariketa motak: Kontakizuna edo deskribapen bat idatzi. Emandako egoera bat *gutun/postal/ohar/posta elektronikoa...* eran adierazi. *Gutun/postal/ohar/posta elektronikoa ...* idatzi bati erantzun. Taula edo grafiko baten informazioa erabiliz *gutun/postal/ ohar/posta elektronikoa ...* idatzi. Irudi, plano, mapetan ikusten duena idatziz adierazi...

2.4 Mintzamina.

Ahozko proba

Egitekoa: Saio bakoitzean bi azterketari batera arituko dira. Bi ariketa egin beharko dituzte. Lehenengo ariketa egiteko, alde zuzenetik gai bana prestatuko dute, bakoitzak bere aldetik.

Denbora: 15 bat minutu (bikoteko)

Gaia prestatzeko denbora: 15 minutu

• **Ezaugarriak:**

0. Aurkezpena: (Ez da ebaluatuko).

Ariketei ekin baino lehen, azterketariek labur-labur euren burua aurkeztuko diote epaimahaiari eta azterketakideari.

1. ariketa: (Bakarrizketa. Gai bati buruzko azalpena eta iritzia azaldu).

Aldez aurretik prestatutako gai baten azalpena egin behar du. Ondoren, aztertzaileak berari edo beste azterketariari entzundako azalpenari buruz egiten ahal dio galderaren bat; hauek erantzun beharko dute

Euskarria: Azterketari bakoitzak gai bat, hari buruzko testu laburra edo argazkiak+informazio laburra eta galdera zehatz batzuk izango ditu gai horren azalpena bideratzeko.

Denbora: 3-4 min. gaiaz hitz egiteko eta minutu bat aztertzailearen galderari erantzuteko.

Azterketari batek bukatzen duenean, besteak ekingo dio, eta prozedura errepikatuko da.

2. ariketa: (Bat-bateko elkarrizketa)

Argazki bidez, galderak edo testu zatiak, izenburuak... gai bati buruzko hainbat aukera/egoera izango dira. Adostasun/akordio batera iritsi behar diren egoera bat aurkeztuko zaie.

Helburua: argumentatu, negoziatu, iritzia trukatu.

Euskarria: Fitxa bakarra biei. Gai/egoera bat + argazki bidez, gai/egoera horri buruzko zenbait aukera/egoera.

Denbora: min 1 fitxa begiratzeko. 6 min. bien artean elkarrizketan jarduteko.

Aztertzaileen aurrean ahoz komunikatzeko gaitasuna frogatu beharko duzu. Gai izan behar duzu jarioetasun aski onez eta zailtasun handirik gabe ondoren zehazten diren egitekoak burutzeko.

Probak hiru zati izanen ditu:

a. Sarrera eta galderak aztertzaileekin harremanetan jartzeko (ohiko galderak, ikasketak, lana, bizitokia...)

b. Gai bati (bat baino gehiago izanen duzu aukeratzeko) buruzko azalpena eta elkarrizketa aztertzaileekin. Gaia prestatzeko 15-20 minutu artean izango dituzu. Gidoi bat erabil dezakezu.

c. Gaiarekin lotutako elkarrizketa, argazki batean oinarri hartuta. Aztertzaileen galderari bat- batean erantzun beharko diezu.

3.- Zatiak eta puntuazioa.

BIGARREN MAILAKO AZTERKETAREN ZATIAK ETA PUNTUAZIOA

Proba idatzia %50	Irakurmena	%20		20 puntu	45 min. inguru
	Idazmena	%30	Gutxienez 15	30 puntu	60 min.
Ahozko proba %50	Entzumena	%20		20 puntu	25 min.
	Mintzamena	%30	Gutxienez 15	30 puntu	10 min.
	GUZTIRA	%100	Gutxienez 60	100 puntu	

Agiria eskuratzeko gutxienez 60 puntu lortu beharko dituzu denera eta 30, proba bakoitzean. Idatziko proban, gutxienez 15 puntu lortu beharko dituzu idazmenean eta ahozko proban, 15 puntu mintzamenean.

Agiria eskuratzeko bi probetan (idatzian eta ahozkoan) gai izan beharko duzu

Emaitza bakarra jasoko duzu: **GAIEZ GAI**.

4.- Zuzentzeko irizpideak.

AHOZKOA

Honako arlo hauek baloratuko dira:

a) Hitz egiteko era

- *Autonomia*

Independentzia mintzatzerakoan neurtzen du. Hitz egiteko laguntza behar duzun ala ez, erantzun lakonikoak... etab.

- *Hitz jariora*

Irizpide horrek hitz egiteko erraztasunaz informazioa ematen du.

- *Ahoskera*

Hitzen ebakera eta esaldien doinua ebaluatzen du eta, ahoskera dela medio, ea arazoak dauden mintzaldia ulertzeko. Erreferentzia, **euskara batuan diharduen jatorrizko hiztunaren** ahoskera hartuko dugu, adibidez irrati-telebistako profesionalena.

b) Diskurtsoari dagokion trebetasuna

- *Adierazpen maila*

Kontzeptu orokor horrekin ulergarritasuna neurtzen da. **Diskurtsoaren koherentzia** oro har ebaluatzen da.

- *Lexikoa*

Hiztegi egokia, aberatsa eta zuzena ebaluatzen da irizpide honen bidez.

c) Zuzentasuna

- *Gramatika eta Sintaxia*

Irizpide horrek kategoria gramatikalak zein egitura sintaktikoak ebaluatzen ditu: kasuak, aditzen denborak, aditz laguntzaileak, esaldi bakunak edo konplexuak, loturak, etab.

Irizpide bakoitza 0tik-10era baloratuko da eta atal bakoitzeko gutxieneko puntuazioa 3 izanen da.

IDATZIZKOA

Honako arlo hauek baloratuko dira:

a) IKUSPEGI OROKORRA.

- Erraz ulertzea lehenbiziko irakurketan.
- Eginkizuna betetzea, eskainitako gaiaren garapena zein neurritan lortu duen, testuaren helburua betetzea.
- Eskatutako informazioa agertzea, eta ongi antolatuta eta egokia izatea.
- Koherentea izatea, hari logiko bati jarraitzea.

b) BALIABIDE LINGUISTIKOAK (aberastasuna)

- Testu motari dagokion egitura.
- Erregistro egokia erabiltzea.
- Testuaren artikulazioa: antolatzaileak, lokailuak, kohesio-formak.
- Lexikoaren aberastasuna, zehaztasuna eta egokitasuna.
- Egitura aberatsak.
- Esamoldeak, esaerak... Oro har ideiak azaltzeko hizkuntza baliabideak.

c) ZUZENTASUNA. (hizkuntza akats nabarmenen balorazioa)

- Mailari dagokion egitura morfosintaktikoen erabilera.
- Lexikoaren erabilera.
- Puntuazioa.
- Ortografia.

Irizpide bakoitza 0tik-10era baloratuko da eta atal bakoitzeko gutxieneko puntuazioa 3 izanen da.